ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2022ko urriaren 10a, astelehena • 116 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

OIONGO UDALA

Udal-hilerriko barne-erregimeneko arautegia behin betiko onestea

Udal-hilerriko Erregelamendua onesteko espedientea jendaurrean egon da 30 eguneko epean, 2022ko uztailaren 22ko 85. zenbakiko ALHAOn (02113 iragarki-zenbakia) argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera.

Jendaurrean egon den epean zehar ez da horren aurkako erreklamaziorik egon. Ondorioz, Udal-hilerriko Erregelamendua behin betiko onetsi da.

Behin betiko onetsitako erreglamendua 2023ko urtarrilaren 1ean sartuko dira indarrean eta egun horretan bertan aplikatzen hasiko da.

Behin betiko onespenak administrazio bidea agortzen du, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Hala ere, egokitzatjotzen den beste edozein errekurtso ere jar daiteke. BO220914B 2V.

Oion, 2022ko irailaren 14a

Alkatea
EDUARDO TERROBA CABEZÓN

UDAL HILERRIKO BARNE ARAUBIDEAREN ERREGELAMENDUA

Oyón-Oiongo Udalak barne araubidearen erregelamendu hau eman du, honako hauekin bat etorrita:

— Uztailaren 5eko 7/1980 Lege Organikoa, Erlijio Askatasunari buruzkoa.

— Azaroaren 3ko 49/1978 Legea, Udal Hilerrietako Lurperatzeei buruzkoa.

— Azaroaren 10eko 26/1992 Legea, Estatuaren eta Espainiako Komunitate Israeldarren Federazioaren arteko Lankidetza Akordioari buruzkoa.

— Azaroaren 3ko 33/2003 Legea, Administrazio Publikoen Ondareari buruzkoa.

— Maiatzaren 7ko 2/2003 Legea, Izatezko Bikoteak Arautzeari buruzkoa.

— Ekainaren 29ko 10/2007 Legea, Ahalmen Urrituentzako Laguntza Txakurrei buruzkoa.

— Ekainaren 25eko 5/2015 Legea, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoa.

— Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki-araubidearen Oinarriei buruzko 25. eta 85. artikuluak.

— Apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzazko Errege Dekretuaren 95. artikulua eta hurrengoak, Indarreko Xedapenen Testu Bateratua onartzen dutenak.

— Apirilaren 7ko 2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 17.1 12) artikulua.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

— Ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.

— Urriaren 19ko 202/2004 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Hilotzen Sanitate-alderdiei buruzko Erregelamendua onartzen duena (EHAA – 2018ko azaroaren 28an, ostegunean. 229. zk.).

— Uztailaren 20ko 2263/1974 Dekretua, hilotzen sanitate-alderdien poliziari buruzko Erregelamendua onartzen duena, indarrean jarraitzen duen neurrian.

— Aplikagarria den beste edozein arau.

I. KAPITULUA. ARAU OROKORRAK

1. artikulua. Zerbitzuaren kudeaketa

Oyón-Oiongo udal-hilerria Moredako errepidean kokatzen da, eta udal-jabetzeko ondasuna da, zerbitzu publiko batera atxikitako jabari publikoko ondasuna da.

Oyón-Oiongo Udalak erregelamendu honetan eta aplikagarriak diren garapen-arauetan eta ordenantza fiskal arautzaileetan zehaztutakoaren arabera kudeatuko du hilerriko zerbitzua.

2. artikulua. Hilerriko zerbitzuak emateko printzipioak

Hilerriak zerbitzuak emango ditu honako printzipio hauetan oinarrituta:

1. Udalak kontzientzia-askatasuna bermatuko du. Askatasun hori ez da soilik erlijiosoa, baizik eta aukera espirituala aukeratzeko askatasuna da, izan pertsona fededuna, ateoa edo agnostikoa.

2. Kontzientzia-askatasuna Espainiako Konstituzioko 16. artikuluan arautzen da. Horren arabera, pertsonen eta komunitateen askatasun ideologiko, erlijioso eta kultura askatasuna garantizatzen da, berarien agerpenetan muga bakar bat izanik, hots, legeak babesten duen ordenu publikoaren jagoterako behar dena bakarrik.

3. Pertsona guztiak berdin tratatzeko eskubidea, beren aukera espirituala edozein izanda ere, ehorzketak inolako bazterketarik gabe egin daitezen.

4. Interes komunaren eta herritarraren gogobetetzea lortzearen aldeko orientazioa.

5. Zerbitzua ematen zaien sufritzaileen senideen eta hurbilekoen sufrimendua arintzen saiatzea.

6. Hilerriko zerbitzuko egungo eta etorkizuneko jasangarritasuna, finantza-jasangarritasuna barne. Zerbitzua ematean eraginkortasuna eta efizientzia lortzea, beharrezko etikan eta errespetuan oinarrituta.

7. Gizarteak heriotzaren tratamenduari buruz duen pentsamoldea aldatzen laguntzea, paisaia-, hirigintza-, gizarte- eta kultura-arloko jardueren bidez.

8. Udalerriko gobernuak herritarren alde egiten duena ikusarazten laguntzea.

9. Tokiko jasangarritasunean eta herritarren osasunean laguntzea.

3. artikulua. Sarbide publikoko instalazioak

Oro har, ehorzketa-unitateak eta erabilera orokorreko instalazioek okupatzen dituzten hilerriko eremu guztiak sarbide publikokoak izango dira.

Publikoa sartu eta zerbitzuak eskaini ahal izateko, ordutegia ahalik eta zabalena izatea saiatuko da, herritarren onerako.

Horretarako, herritarrei ordutegiaren berri emango zaie, eta irizpide-askatasunez ezarriko da, eskakizun teknikoen, heriotza-indizeen, langileen zerbitzu-denboren arrazionalizazioaren, klimatologiaren, eguzki-argiaren eta horiek une bakoitzean zabaltzea edo murriztea gomendatzen duen beste edozein zirkunstantziaren arabera.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

4. artikulua. Erregelamenduko izendapenak

Erregelamendu hau aplikatzeari eta horren garapen arauei dagokienez, ondokoak definitu egiten dira:

— Autopsia: heriotzaren kausa edo alterazio patologikoen izaera zehaztearren egindako hilotzaren azterketa.

— Ganga: gure inguruan panteoi hitza erabiltzen da. Hilotz bat baino gehiago, gorpuzkiak edo hautsak gordetzeko hainbat espazio dituen ehorzketa-unitatea.

— Hilotza: heriotzaren ondorengo bost urteetan giza gorputza, betiere Erregistro Zibilean egindako heriotza-inskripzioan jasotako heriotza-egun eta -ordutik hara zenbatuaz aipatu epea. Heriotzatik hara bost urte igaro ondoren, materia organikoa suntsitzeko fenomenoak zehaztu gabe dituen giza gorputza ere hilotz kontsideratzen da.

— Hilerria: hilotzak, hilotz-hondarrak edo gorpuzkiak edo horietatiko hautsak ehorzteko atontzen den lurzoru zedarritua, nondik ez baitator arriskurik gizakien osasunarentzako.

— Hautsak: hilotz bat, hilotz-hondarrak edo gorpuzkiak erre ondoren geratzen diren hondarrak.

— Kolunbarioak: errausketatik eratorritako gorpuzkiak edo errautsak gordetzeko neurri aproposa duten ehorzketa-unitateak.

— Izozketa: gehienez ere, -18 ºC-ko tenperaturarekin, hotzaren bitartez hilotzak kontserbatzeko metodoa.

— Aldi baterako kontserbazioa: substantzia kimikoak aplikatuaz usteltze-prozesua atzeratzen duen metodoa.

— Errelekua: hilotzak, hilotz-hondarrak eta gorpuzkiak erretzeko atondutako hileta-establezimendua.

— Hildakoaren helbidea: heriotza jazo den lekua, erregelamendu honen ondorioei dagokienez etxebizitza bat ospitale bat.

— Eraikin publikoa: erabilera publikoetarako eraikina (beilatokiak ez).

— Baltsamamendua: usteltze-fenomenoak agertzea eragozten duen metodoa.

— Hileta-enpresak: hilotzak atondu, manipulatu eta garraiatzeko zerbitzuak ematen dituztenak, eta, horretaz gain, helburu horietarako ondasun eta zerbitzu osagarriak ematen dituztenak.

— Eskeletotzea: materia organikoa desintegratzen denetik guztiz mineralizatu arteko azken fasea.

— Hilkutxa arrunta, hilkutxa berezia, erraketa-hilkutxa, bilketa-hilkutxa, hondarren kutxa eta hautsen kutxatila: aplikagarria den araudian bakoitzarentzat ezarritako baldintzak betetzen dituztenak.

— Errausketa/erreketa: beroaren bitartez hilotzak, hilotz-hondarrak edo gorpuzkiak hauts bihurtzea.

— Nitxoa: prisma baten forma baliokidea duen ehorzketa-unitatea, gainjarritako hileren eraikingintzan integratuta eta hilotz bakarra gordetzeko tamaina nahikoarekin. Tamaina bereziko nitxoak eraiki ahal izango dira, tamaina handiagoko hilotzak ehorzteko.

— Panteoia (ganga): hilotz bat baino gehiago, gorpuzkiak edo hautsak gordetzeko hainbat espazio dituen ehorzketa-unitatea.

— Partzela: behar bezala mugatutako lurzatia. Bertan ehorzketa-unitatea edo hilobi-monumentua eraiki daiteke hilobi edo panteoi (ganga) baten antzeko egiturarekin, aplikagarriak diren arauetan aurreikusitako ornamentu eta ezaugarriekin.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

— Usteltzea: mikroorganismoek eta fauna laguntzaileak hilotzari ekinez materia organikoa desagertzera daroan prozesua.

— Hozketa: usteltze-prozesuak atzeratzeko, 6 ºC-tik beherako tenperaturan izatea hilotza.

— Hilotz-hondarrak: heriotzatik harako bost urte igaro ondoren gorputzetik geratzen dena, betiere materia organikoa suntsitzeko fenomenoa amaitu bada.

— Gorpuzkia: interbentzio kirurgiko, anputazio edo abortuetatik eratorritakoak, entitate nahikoa badute.

— Tanatoestetika: itxura hobetzeko helburuarekin hilotza atontzeko modelatu- eta kosmetika-teknika zenbait.

— Tanatopraxia: sanitate-garantiekin hilotza erakutsi eta kontserbatzearren, baltsamenduaren edo aldi baterako kontserbazio-praktiken bitartez usteltzea eragotzi edo atzeratzen duten teknikak, hilotzari aplikatzekoak direnak.

— Beilatokia: heriotza-lekutik erreketa- edo ehorzketa-lekura eraman bitartean hilotza izateko prestaturik dagoen hileta-tegi edo –establezimendua, hilotzak erakutsi eta beilatzeko behar bezala atondua eta eratua.

— Hilobia, ehorztokia edo hobia: sestra azpian eraikitako ehorzketa-unitatea, bat edo hainbat hilotz zein hautsak eta gorpuzkiak ehorzteko balio duena. Ehorztokien gutxieneko baldintzak aurrerago deskribatuko dira.

— Ehorzketa-unitatea: Hilotzak, gorpuzkiak edo hautsak behar bezala ehorzteko gaitutako tokia.

II. KAPITULUA. ANTOLAMENDU ETA ZERBITZUENA

5. artikulua. Zerbitzuen antolamendua eta zuzendaritza

1. Udalari dagokio, eta langile publikoen bidez jarduten du, bere eskumenekoak diren hilerri eta hileta-zerbitzuen esparru eta instalazio guztiak zuzentzea eta administratzea, eta bere kargu egongo da berezkoak dituen zerbitzuak antolatzea eta eskaintzea; aplikagarriak diren xedapen orokorrak, sanitarioak edo bestelakoak, eta Erregelamendu honetan ezarritako xedapenak bete beharko ditu.

2. Zerbitzuak behar bezala ematen direla bermatuko da, ehorzketarako espazioak eta eraikuntzak daudela ziurtatuko duen plangintza baten bidez, eta beharrezkoak diren eraikuntza-obrak eta kontserbazio-lanak egingo dira hala eskatzen duten erabiltzaileei zerbitzua bermatzeko.

3. Udalak bermatuko du hileta-barrutietan eta -instalazioetan ordena mantentzen dela, eta horien funtzioa behar bezala errespetatzen dela; horretarako, beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartuko ditu, eta, bereziki, honako arau hauek bete daitezela eskatuko du:

a) Langileek publikoari beharrezko arreta emango diote, eta saihestuko du hileta-barrutietan egintza gaitzesgarriak egitea, eskupekoak eskatzea eta zerbitzuari lotutako emakidak, opariak edo agentziak jasotzea.

b) Bisitariak errespetuz arituko dira esparruan, eta, arau hori bete ezean, eskumena duten segurtasun-zerbitzuen bidez, legezko neurriak hartuko dira pertsona horiek barrutitik ateratzea agintzeko.

c) Hilerriko instalazioak eta esparruak zainduko dira; hala ere, erantzukizunetik kanpo geldituko dira ehorzketa-unitateetan eta gerta daitezkeen lapurreten edo narriaduren erantzukizuna, oro har, erabiltzaileen ondasunen lapurretak.

d) Debekatuta dago ehorzketa-instalazioetan eta hilerriko esparruetan kalez kaleko salmenta eta edozein motatako propaganda egitea; bai eta berariaz baimenik ez duten pertsonek edozein zerbitzu mota eskaintzea edo ematea ere.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

e) Ezin dira ehorzketa-unitateen ezta ehorzketa-barruti edo instalazioen argazki, marrazki, irudi, filmik edo beste edozein erreprodukziorik egin, eta guztiz debekatuta dago edozein erreprodukzio-aparaturekin sartzea. Hala ere, justifikatzen baldin bada, esparruaren ikuspegi totala edo partziala baimendu ahalko da.

f) Obrek eta hilobi-inskripzioek barrutien funtzioarekin bat etorri behar dute.

g) Animaliak ezin dira sartu, Ahalmen Urrituentzako Laguntza Txakurrei buruzko ekainaren 29ko 10/2007 Legean zehazten diren Ahalmen Urrituentzako Laguntza emateko eskubideak eta betebeharrak dituzten txakurrak izan ezik.

h) Ibilgailuak ezin dira sartu, Erregelamendu honetan eta arauetan berariaz baimentzen direnak izan ezik.

6. artikulua. Zerbitzu eta prestazioena

a) Udal-hilerriko zerbitzuen kudeaketaren barne, honako kasu, jarduketa eta prestazio hauek sartzen dira:

a. Hilotz edota gorpuzkien ehorzketak eta hilobietatik ateratzeak ikuskatzea; baita hilotzen osasun arloan indarrean dagoen legeriak behartutako beste edozein jarduera ere.

b. Hilerria administratzea eta haren ordena zaintzea eta garbitzea eta araudia betetzea.

c. Hilobi mota guztietako eraikuntza-, handitze-, berritze. eta mantentze-lanak.

d. Hilerriaren elementu, eraikin eta instalazio komunak zaindu eta garbitzeko lan eta zerbitzuak egitea, bai eta elementu horien funtzionamendua ere.

b) Udal-hilerriko zerbitzuen kudeaketaren barne, dataren egunean zehazten ez diren jarduera eta prestazio hauek jaso daitezke:

a. Gorpuzkiak erraustea.

b. Hilotzak biltegiratzea.

c. Hilerriko zerbitzuan integratutako beste edozein jarduera, egungo teknikak edo gizarte-ohiturek inposatua edo etorkizunean gara daitekeena.

c) Artikulu honetako 1. ataleko letretan agertzen diren prestazioak hileta-enpresa batek eman ahalko ditu. Partikularrek ez dute inoiz horretarako baimenik izango.

7. artikulua. Hilerriko zerbitzuaren funtzio administratibo eta teknikoak

1. Hilerri-zerbitzuak eskumena du bere helburuak betetzeko egin beharreko eginkizun administratiboak eta teknikoak egiteko, bereziki, honako eginkizun hauek osorik egiteko:

2. Gai hauei buruzko ebazpenak abiaraztea, izapidetzea eta ebaztea:

a. Udal-eraikuntzako ehorzketa-unitateen gaineko eta panteoiak eraikitzeko partzelen gaineko ehorzketa eskubidea ematea eta aitortzea.

b. Ehorzketa eskubidearen eskualdatzea aldatzea eta aintzatestea, Erregelamendu honetan adierazitakoarekin bat.

c. Ehorzketa eskubidearen onuradunen izendapenak jasotzea eta baimentzea.

d. Hilotzak eta gorpuzkiak ehorzteko, desobiratzeko, lekualdatzeko, murrizteko, erretzeko eta errausteko baldintza legalak betetzen direla egiaztatzea.

e. Nitxo, hilobi, panteoi eta kolunbarioko nitxoetan hilarriak ipintzeko lizentziak ematea.

f. Aurretik adierazitako funtzioetatik eratorritako mota guztietako izapide, espediente eta prozedura osagarriak.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

g. Hilotzak eta gorpuzkiak ehorzteko edo desobiratzeko baimena ematea, hilotzen osasunari buruzko araudiak esleitutako udal-eskumeneko kasuetan.

3. Partikularrek egin beharreko eraikuntza-, eraberritze-, zabaltze-, mantentze- eta bestelako obretarako aurretiazko lizentzia eta komunikazioei buruzko espedienteak izapidetzea eta horiei buruzko txostenak egitea.

4. Mota guztietako ehorztoki, eraikin eta hileta-instalazio edo zerbitzu osagarriak eraikitzeko, zabaltzeko, berritzeko eta mantentzeko obren proposamena, bai eta kudeatu behar dituzten esparruetako lurzoruaren, lurpearen eta lurgainaren hirigintza-elementuena ere.

5. Aurreko paragrafoan aipatutako era guztietako obrak gauzatzea, beren kabuz edo administrazio-kontratazioaren bidez.

6. Nahitaez edo aukeran eraman behar diren erregistro-liburuak eramatea, eta horietan kasuan kasuko idazkunak egitea; gutxienez honako hauek jasoko dira: ehorzketak, errausketak, ehorzketa-unitateak eta partikularrei emandako ehorzketa eskubideen emakidak. Erregistro-liburuak bitarteko informatikoen bidez ere eraman ahal izango dira.

7. Liburuen edukiari buruzko ziurtagiriak egitea liburuen arabera eskubideren baten titular direnei, edukiaren eraginpean daudenei edo interes legitimoa egiaztatzen dutenei.

8. Izaera pertsonaleko datuen babeseko araudiaren arabera jokatuko da.

9. Salbuespenezko inguruabarrei buruzko erabakiak hartzeko proposamena, bere irizpidearen arabera eta legezko marjinen barruan, eta hilkutxak ehorzketa edo errausketaren aurretik irekitzeko baimena, senitartekoek hilotza beha dezaten. Oro har, Alkatetza izango da erabakia hartzeko eskumena duen organo eskuduna.

8. artikulua. Errituak egitea

1. Udal-hilerrian errituak egitea Konstituzioan bermatzen den kontzientzia- eta kultu-askatasunean oinarritzen da, eta, ondorioz, horrek hertsapen-immunitatea dakar.

2. Pertsonen eta komunitateen ideologia-, erlijio eta kultu-askatasuna bermatuko da beren adierazpen ezberdinetan, baldin eta legeak ezarritako ordena publikoa mantentzen bada.

3. Hileta-errituak ehorzketa-unitatearen inguruan egin ahal izango dira, hildakoaren nahiarekin edo familiak erabakitzen duenarekin bat.

4. Hilerriaren barne mota hauetako errituak egiteko espazioa prestatuko balitz, erlijio ezberdinetako aitortzak baimenduko dira, eta erritu ez-erlijiosoak, hileta zibila egitea ere baimenduko da.

5. Hilerriko zerbitzuak eta Udalak ez dute erriturik antolatu edo egingo.

9. artikulua. Erabiltzaileen eskubideak eta zerbitzu-ematea hobetzeko ekarpenak

Udalak zorrotz eta modu zabalean beteko du araudia eta erreklamazio-orriak jarriko ditu erabiltzaileen esku, hura ebaluatuko du eta erreklamazioaren emaitzaren berri emango du.

Udalak aukera emango die erabiltzaileei zerbitzu-ematearen inguruko iritzia ematea ohar eta iradokizunen bidez. Bidezkoak eta posibleak balira, aztertu, ikertu eta ezarriko lirateke, eta ohar eta iradokizunen emaitzaren berri emango du.

III. KAPITULUA. EHORZKETA-ESKUBIDEARENA

10. artikulua. Ehorzketa-eskubidearen edukia

I. Udal-hilerria zerbitzu publiko bati atxikitako jabari publikoko ondasuna da, eta, ondorioz, ehorzketa-unitateak ez dira jabetza pribatukoak: nitxoak, panteoiak edo hilobiak.

II. Ehorzketa-eskubideak (administrazio-emakidaren bidez eskuratuak eta erregelamendu honetan zehaztutako moduan eratuak) titularrari ehorzketa-espazio edo -unitatearen erabilera esklusiboa esleitzen dio hilotzak, hautsak eta gorpuzkiak ehorzteko, eta motaren arabera, emakidan zehaztutako denboran zehar.

III. Zoruaren jabetza ez da esleituko.

11. artikulua. Eskubidea eskuratzea

Interesdunak aldez aurreko eskaera egingo du ehorzketa-eskubidea lortzeko, eskaeraren unean indarrean dauden tarifak ordainduz. Eskubide horiek ez ordaintzekotan, eratu gabekotzat joko da, eta ehorzketa-unitatea aldez aurretik erabili bada, Udalak ahalmena izango du, aplikatu beharreko osasun-xedapenak bete ondoren hilotza, gorpuzkiak edo hautsak lurpetik ateratzeko eta ehorzketa komunera eramateko, errausketa egiteko.

12. artikulua. Eskubidearen aitorpena

Ehorzketa eskubidea eratzean, aitortu egiten da izenpetutako kontratu-tituluaren bidez, eta dagokion erregistro-liburuetan inskribatuko da.

Ehorzketa-eskubideko kontratu-tituluan honako informazio hau jasoko da gutxienez:

1. Ehorzketa-unitatearen identifikazioa, unitate mota adieraziz.

2. Adjudikazio-data.

3. Lehenengo ehorzketaren data.

4. Eskubidearen iraupena.

5. Titularraren, edo, hala badagokio, "mortis causa"ren onuradunaren izen-abizenak, identifikazio fiskaleko zenbakia eta jakinarazpenetarako helbidea.

6. Titularrak ehorzketa-unitaterako ezarritako mugak edo erabilerako baldintza bereziak.

Ehorzketa-liburuaren erregistro-liburuan kontratu-tituluan aipatutako informazio bera jaso beharko da aurreko paragrafoan adierazitakoarekin bat, bai eta honako informazio hau ere:

1. Ehorzketak, desobiratzeak, lekualdaketak eta beste edozein jarduketa egitean hildakoen izen-abizenak eta jarduketa bakoitzaren data adieraziko da.

2. Egindako obrak eta emandako hilarriak.

3. Ehorzketa-unitateari eragiten dion beste edozein datu edo arazo, Udalak jakin behar duela uste bada.

13. artikulua. Eskubideen jabetza

Honako hauek izango dute ehorzketa eskubidea:

1. Pertsona fisiko bakarra, dei-egilea izango dena.

2. Eskubidea pertsona fisiko bakar bati emango zaio, edo inter vivos eskualdaketengatik aitortuko da.

3. Bi ezkontideak, lehenengo eskuratzearen momentuan irabazizko erregimenaren barne badaude.

4. Komunitate erlijiosoak, Administrazioaren onespena jaso duten ongintzako etxeak edo ospitaleak, fundazioak, eta, oro har, irabazi-asmorik gabeko erakundeak, baina soilik kideek eta babestutako edo hartutako lagunek erabiltzeko.

5. Hilobi-eskubidea ezin izango da inter vivos erregistratu merkataritza-erakundeen izenean, bereziki aseguru-etxeen, aurreikuspen-enpresen edo antzeko beste edozeinen izenean, baldin eta, esklusiboki edo beste arrisku batzuen osagarri gisa, beren afiliatuei hilobiratze-eskubidea bermatzen badiete hiltzen diren egunerako.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

6. Hilobi-eskubidea ezin izango da inter vivos erregistratu izaera juridikoa ez duten taldeen izenean.

7. Mortis causa eskualdatze bidez pertsona bat baino gehiago eskubidearen titular denean, beren artean erabakiko dute nor izango den jakinarazpenak jasotzeko arduraduna, eta ordezkari horrek gainerako titularkideei egindako jakinarazpenak baliozkotzat joko dira. Ordezkariaren jarduketak titular guztien izenean egiten direla ulertuko da, eta horiek ere nahitaez bete beharko dituzte. Izendapen zehatzik egin ezean, ordezkaritzat joko da parte-hartze handiena duen pertsona, edo, bestela, kausatzailearekin ahaidetasun-harreman hurbilena duena; eta gradu-berdintasuna izanez gero, adinik handiena duena.

8. Komunitate erlijiosoak, ongintza-establezimenduak, kofradiak, elkarteak, fundazioak, eta, oro har, irabazi-asmorik gabeko erakundeak.

14. artikulua. Titularraren eskubideak

Aurreko artikuluekin bat osatutako hilobi-eskubideak honako eskubide hauek ematen dizkio titularrari:

1. Hilotzak, gorpuzkiak edo hautsak gordetzea.

2. Ehorzketa-unitatean egin behar diren ehorzketak, desobiratzeak, gorpuzkiak gutxitzea eta bestelako jarduketa batzuk agintzea.

3. Hilerrian ezarritako berezko zerbitzu-ematea eskatzea.

4. Esparrua eta instalazioa, oro har, behar bezala kontserbatzeko, zaintzeko eta garbitzeko eskatzea.

5. Hura hil ostean, onuraduna nor izango den zehaztea, erregelamendu honetako zehaztapenekin bat.

15. artikulua. Betebeharrak

Aurreko artikuluetan adierazitakoarekin bat osatzen den ehorzketa-eskubidearen titularrak honako betebehar hauek izango ditu:

1. Ehorzketa-eskubidearen kontratu-titulua mantentzea. Titulua aurkeztea nahitaezkoa da zerbitzuen-ematea eskatzeko edo obrak eta hilarriak baimentzeko.

2. Lizentzia eskatzea edo hilarriak, ikurrak, epitafioak ipintzen direla jakinaraztea, bai eta beste edozein obra mota eraikiko dela ere.

3. Titulartasuneko obra eta instalazioen zaintza, mantentzea eta garbiketa mantentzea, bai eta adjudikatutako eta udala-titulartasuneko ehorzketa-unitateen kanpoko itxurarena ere, ezarritako araudiarekin bat datozen ornamentuzko elementuak ipiniz.

4. Helbideak, telefono-zenbakia edo titularraren eta Udalaren arteko harremanetarako garrantzitsua den beste daturik aldatzekotan, horren berri ematea.

5. Eskubideak ordaintzea, legez onartutako tarifen arabera, eskatzen diren zerbitzu, prestazio eta lizentziengatik, eta esparru eta instalazioen kontserbazio orokorragatik.

6. Ehorzketa-eskubidea iraungitzean, norberaren obrak edo ornamentuak kentzea.

Titularrak betebehar hauek ez betetzekotan, Udalak, aldez aurretik eskatu ostean, beharrezko zuzenketa-neurriak hartu ahal izango ditu, eta horren zenbatekoa titularraren kontura izango da.

16. artikulua. Eskubidearen iraupena

1. Ehorzketa-eskubideak hura ematean zehaztutako epea iraungo du, eta, hala dagokionean, luzatzen den epera arte.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

2. Ehorzketa-eskubidea honako epe honetarako eman daiteke:

a) Bost urteko aldia, hilotz bakarra berehala nitxoan gordetzeko.

b) Bost urteko aldia, hilotz bakarra berehala hilobian gordetzeko.

c) Hamar urteko aldia, gorpuzkiak edo errausketatik eratorritako hautsak kolunbarioan edo hezurtegian gordetzeko.

d) Hirurogeita hamabost urteko aldia, tokiko jabari publikoa okupatzeko, hilotzak, gorpuzkiak edo hautsak berehala panteoian (ganga) ehorzteko.

3. a, b eta c puntuetako emakiden denbora luzatu ahal izateko, hileta-eskubidea ematen den aldia hartu beharko da kontuan, eta gehienez ere hirurogeita hamabost urte arte izango da.

4. a, b eta c puntuetako emakiden denbora luzatzeagatiko tarifa gutxienez ehuneko 100 handituko da emakidako hogei urte igaro ostean.

5. Ezingo da hilotzik ehortzi emakida urtebeteko aldian amaitzen den ehorzketa-unitateetan.

17. artikulua. Eskubidea eskualdatzea

a. Ehorzketa-eskubidea ezingo da salerosketa-, transakzio edo kostu bidezko eskuratzearen xede izan. Udalak erregelamendu honetako aginduekin bat ez datorren edozein eskualdaketa baztertuko du.

b. Ehorzketa-eskubidea soilik dohainik eskualdatuko da, "inter vivos" eta "mortis causa" bidez.

18. artikulua. Eskualdaketaren aitorpena

Ehorzketa-eskubidearen eskualdaketak eragina izan dezan, Udalak aldez aurretik aitortu beharko du.

Horretarako, interesdunak, dokumentu fede-emaile bidez, eskualdatzearen baldintzak egiaztatu beharko ditu.

"Inter vivos" eskualdaketa izatekotan, dohainik izan dela ziurtatu beharko da.

19. artikulua. "inter vivos" egintzen ondoriozko eskualdaketak

1. Titularrak ehorzketa-eskubidea dohainik lagatu ahalko du inter vivos egintza bidez, ezkontidearen, gurasoen, seme-alaben edo laugarren maila arteko odolkide eta hirugarren maila arteko ahaideen alde.

2. Udalaren aldeko aurretiko itzulera baimenduko da, dohainik.

3. 13.4 artikuluko komunitate eta erakundeei dagozkien hilobietan ez da eskualdatzerik baimenduko, baldin eta desegin ez badira.

20. artikulua. "Mortis causa" eskualdaketa

Ehorzketa-eskubideko "mortis causaren" eskualdatzea Zuzenbide Zibilean oinordetzarako ezarritako arauen arabera gidatuko da, eta onuraduntzat hartuko da testamentuzko oinordetza edo testamenturik gabeko oinordetza eskuratzea dagokion pertsona, salbu eta hurrengo artikuluan adierazitako kasuan.

21. artikulua. Ehorzketa-eskubidearen onuraduna

1. Ehorzketa-eskubidearen titularrak, emakida indarrean dagoen epean zehar, eta hura hiltzen denerako, eskubidearen onuradun bat izendatu ahalko du, eta bere posizio berean subrogatuko da.

2. Titularrak edozein momentutan ezeztatu edo aldatu ahalko du izendatutako onuraduna, baita geroko testamentu-xedapen bidez ere; espresuki egin beharko du.

3. Onuradunak titularraren heriotza justifikatu ostean, eskualdaketa aitortuko da, eta titulu-kontratu berri bat egingo da onuradunaren alde, eskubide osoko titular berri gisa, eta erregistro-liburuetan egin beharreko inskripzioak egingo dira. Aitorpena emakidatik geratzen den denborarako egingo da.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

22. artikulua. Eskualdaketa behin-behinean aitortzea

Titularra hiltzekotan, onuradunak ezingo balu eskualdaketa oinordetzako titulu bidez egiaztatu, eskualdaketa behin-behinean aitortzea eskatzeko aukera izango du. Hori eskuratzeko eskubidea justifikatzeko agiriak entregatu beharko ditu. Udalaren iritziz entregatutako agiriak egiaztatzeko nahikoak ez balira, aitorpena bertan behera uzteko aukera izango du.

Nolanahi ere, titulu-kontratuan eta dagozkion inskripzioetan jasoko da aitorpena behin-behinean egiten dela, eskubide hobea duten hirugarrenei kalterik egin gabe. Behin-behineko inskripzioa pertsona batek baino gehiagok egin nahi badute, eta beste titulu batzuen bidez, ez da behin-behineko eskualdaketarik aitortuko. Behin-behineko aitorpena baliozkotu egin beharko da, eta behin betiko bihurtu, eskualdaketa egiaztatzen duen agiri fede-emailea aurkeztuta.

Dena den, behin-behineko aitorpena behin betiko bihurtuko da hamar urte igaro ostean horren aurkako erreklamaziorik egon ezean, eta ez bada ondoriorik gabe utzi hirugarren pertsona baten aldeko eskualdaketa modu frogagarrian egiaztatzeagatik.

Hirugarren batek titulartasuna erreklamatzekotan, dagokion ehorzketa-unitatearen gaineko eskubideen egikaritza eten egingo da, eskubidearen eskuratzailea nor den behin betiko ebatzi arte.

23. artikulua. Ehorzketa-eskubidea iraungitzea

Ehorzketa-eskubidea honako kasu hauetan iraungiko da:

1. Emakidaren epea igarotzen denean, edo hala badagokio, horren luzapenarena.

2. Ehorzketa-unitatea alde batera uzten bada. Ulertuko da hilotz, gorpuzki edo hauts guztiak desobiratu direla, eta ehorzketa-unitatea guztiz libre gelditu dela.

3. Erregelamendu honekin bat, ehorzketa-unitatean egindako zerbitzuak edo jarduketak ordaindu ezean.

24. artikulua. Ehorzketa-eskubidearen iraungitzeari buruzko espedientea

a. Aurreko artikuluan aurreikusitako 1. kasuan, ehorzketa eskubidea automatikoki iraungiko da, inolako espedientearen instrukziorik egin behar gabe.

b. Aurreko artikuluan jasotako gainerako kasuetan, eskubidearen iraungitzea aldez aurretiko espedientearen instrukzioaren bidez egingo da. Espediente horretan interesdunei entzunaldia emango zaie hamar eguneko epean, eta aurkeztutako alegazioak ikusita ebatziko da.

c. Aurreikusitako entzute-epean zor den dirua ordaintzekotan, ez ordaintzearen ondorioz irekitako espedientea artxibatuko da eta eskubidea ez da iraungiko.

25. artikulua. Ehorzketa-unitateak uztea

Ehorzketa-eskubidea iraungitzean, Udalak eskubidea izango du ehorzketa-unitatea husteko, eta beharrezko desobiratzeak egingo ditu bertan zeuden hilotzak, gorpuzkiak edo hautsak lekualdatzeko ohiko ehorzketa edo errausketa egiteko.

Udalak ere ahalmen bera izango du ehorzketa-unitatearen adjudikaziodunak hura emateagatik sortutako eskubideak ordaintzen ez baditu, haren gaineko ehorzketa-eskubidea eratu ez dela ulertzen baita.

Kasu horretan, adjudikaziodunak ordainketa egin beharko du hamar eguneko epean, eta ez egitekotan, unitatea hustuko da aurreko paragrafoan adierazitakoarekin bat.

Ehorzketa-eskubidearen epea igaro delako iraungitzen bada, unitatea indarrean hustu aurretik, titularrari jakinaraziko zaio, eta epea eskainiko zaio unitatea boluntarioki hustutzeko.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

IV. KAPITULUA. OBRA ETA INSTALAZIO PRPARTIKULARRAK

26. artikulua. Partikularren ornamentuzko eraikuntzak eta instalazioak

Soilik honako ornamentuzko instalazio hauek (hilarriak) baimenduko dira ehorzketa-unitate bakoitzerako:

a) Nitxoetarako: nitxo bakoitzean soilik harri natural zuriko harrizko plaka bat instalatzea baimenduko da. Ez da nitxoaren markoa baino handiagoa izango.

b) Hilobietarako: hilobi bakoitzean soilik harri natural zuriko hilarri bertikala instalatzea baimenduko da. Hilarriak 50 cm-ko luzera, 38 cm-ko zabalera eta 5 cm-ko lodiera izango du.

c) Kolunbario-nitxoetarako: nitxo bakoitzean soilik harri natural zuriko harrizko plaka bat instalatzea baimenduko da. Ez da nitxoaren markoa baino handiagoa izango.

d) Panteoirako.

Ehorzketa-eskubidea amaitzen denean, titularrak artikulu honetan jasotzen diren obra eta instalazio guztiak erretiratu beharko ditu. Hala egin ezean, Udalak kendu ahal izango ditu, eta geratzen diren material eta ornamentu guztiak erabili ahal izango ditu, inolako kalte-ordainik jaso gabe.

27. artikulua. Panteoia (ganga) eraikitzeko obrak egikaritzea

Hilotz bat baino gehiago, gorpuzkiak edo hautsak gordetzeko ehorzketa-unitate baterako ehorzketa-eskubidea emateko, honako arau hauetara egokitu beharko da:

a. Panteoia eraikitzeko ehorzketa-eskubidea ematekotan, eraikitako gainerako panteoien antzeko tamaina izan beharko du. Hau da, ez da baimenik emango 2022ko urtarrilaren 1a arte eraikitako panteoietan baino hilotz gehiago gordeko dituzten panteoietarako.

b. Panteoia (ganga) eraikitzea soilik Udalari dagokio.

c. Interesdunak, panteoia eraikitzen hasi aurretik, aurreikusitako gutxi gorabeherako kostua ordaindu beharko du.

d. Emakida adjudikatu ostean, Udala 6 (sei) hilabeteko epean hasi beharko da eraikitzen.

e. Obrak amaitu ostean, interesdunak obretako kostuaren behin betiko likidazioa ordaindu beharko du.

f. Udalak ikuskatu eta egiaztatu ondoren, obrak titularraren esku geratuko dira, eta ehorzketa-unitatean alta emango dio, ehorzketa-eskubidea emateagatiko tasa ordaindu ondoren.

28. artikulua. Ornamentuzko obrak eta instalazioak egiteko arauak

26. artikuluan deskribatutako obrak baimenduko dira soilik.

29. artikulua. Landaketa

Hilerriko zerbitzuak landatuko du soilik.

30. artikulua. Kontserbazioa eta garbiketa

Mota guztietarako ehorzketa-unitateen titularrek hilerriko bideak, zuhaitz-sailak eta instalazio orokorrak kontserbatzen, mantentzen eta garbitzen lagundu beharko dute. Horretarako, aurretik azaldutako arauak zorrozki bete beharko dituzte eta Udalak helburu horretarako zehaztu ahalko duen kanona ordainduz.

31. artikulua. Errausketa-labearen kokapena

Finantza-, urbanizazio- edo espazio-ordenaren kontrako arrazoirik egon ezean, ahal den neurrian, errausketa-labea hilerriaren barne instalatuko da.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

V. KAPITULUA. EHORZKETA-UNITATEEN GAINEKO JARDUKETAK

32. artikulua. Arau higieniko-sanitarioak

a. Ehorzketa, desobiratzea, lekualdaketa eta hilotzak eta gorpuzkiak erraustea beti indarrean dauden gai higieniko-sanitarioen arauen xedapenei jarraituz egingo dira.

b. Jarduketa horietakoren bat egin aurretik, legez aurreikusitako kasuetan, agintari eskudunak emandako baimenak, inspekzioak edo oniritzia exijituko dira.

c. Nolanahi ere, beharrezko prekauziozko neurriak hartzea agindu daiteke baldintza higieniko-sanitarioak babesteko, agintaritza eskudunak hala erabaki arte.

33. artikulua. Ehorzketa-kopurua

Ehorzketa-unitate bakoitzeko edukierak eta ezaugarriek baldintzatuko dute zenbat ehorzketa egin daitezkeen jarraian, bai eta ehorzketa-unitatearen edukiak eta hura ematean ezarritako baldintzek ere.

Ehorzketa berria egiteko tokia prestatu behar bada, aldez aurretik zeuden gorpuzkiak murriztu beharko dira.

34. artikulua. Ehorzketa-unitateetan egin daitezkeen jarduketak zehaztea

Soilik ehorzketa-unitatearen titularrak izango du ehorzketa-unitatean ehorzketak, desobiratzeak eta gainerako jarduketak egiteko erabakia eta eskaera egiteko eskubidea.

Unitatea okupatuko duten hilotzak eta gorpuzkiak izendatzeko, eta horiek mugatzeko edo kanpoan uzteko eskubidea ere soilik berea izango da, baldin eta jarduketak agintaritza eskudunaren aginduz egin behar ez badira.

Nolanahi ere, berariaz baimenduko da titularra ehorztea.

Ez da baimenduko ehorzketa-eskubidearen titularrarentzat arrotzak diren pertsonak ehorztea, salbu eta kasu bakoitzean Udalak baimena ematen badu, titularrak hala eskatuta, eskaeraren arrazoia adierazi eta egiaztatu bada, eta hori irizpide-askatasunez balioetsi bada.

Hilotza ehorzteko lekuaren, edo gorpuzkiak edo errausketaren ondoriozko hautsak hobitik ateratzeko lekuaren inguruan desadostasunik izanez gero, hildakoaren asmoa hartuko da kontuan, baldin eta, halakorik ezean, heriotzaren egunean legez bananduta ez dagoen ezkontidearena, eta, halakorik ezean, odolkidetasunezko ahaideena, elikagaiak erreklamatzeko Kode Zibilean aurreikusitako ordenari jarraituz.

35. artikulua. Ordezkaritza

Ehorzketa-eskubidearekin zerikusia duten kudeaketa, eskaera eta baimenetan esku hartzen duten hileta-zerbitzuetako enpresek titularraren izenean jarduten dutela ulertuko da, bai eta haiek egindako edozein eskaera edo baimen eta ondorio guztietarako ere.

36. artikulua. Obren ondoriozko jarduketa bereziak

Hilotzak, gorpuzkiak eta hautsak dituzten ehorzketa-unitateak konpontzeko obrak egin behar direnean, horiek horretarako prestatutako unitateetara eramango dira denbora batez. Nolanahi ere, osasun-xedapenak beteko dituzte, eta obrak amaitzean, hasierako unitatera itzuliko dira.

Hilerriko zerbitzuak obra orokorrak egiten dituenean, ehorzketa-unitatea desagertzea eragiten badu, lekualdaketa ofizioz egingo da, behin betiko, antzeko beste ehorzketa-unitate batera eta ehorzketa-eskubidearen baldintza guztiak errespetatuz trukatuko da.

Kasu horretan, titularrari ohartaraziko zaio jakinaren gainean gera dadin, eta lekualdaketa egiten den momentuan bertara joan ahal dadin. Horren akta egingo da, eta, ondoren, ehorzketa-unitate berriari buruzko titulu-kontratu berria egingo da, ordezkapena jasota eta aurreko titulua emateko falta den denborarako.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Jarduketa horiek hilerri zerbitzuari dagozkion eraikin eta instalazioetako obren ondorioz egiten badira, ez da inolako eskubiderik sortuko. Kontserbazioa titularrari badagokio, jarduketa bakoitzari dagozkion eskubide guztiak sortuko dira.

VI. KAPITULUA. EHORZKETA-UNITATEAK AURREIKSUTEA

37 artikulua. Ehorzketa-unitateak

1. Hilerrian honako ehorzketa-unitate mota hauek aurreiksuten dira:

a) Hilotzerako nitxoa.

b) Hilobirako partzela. Honako hauek dirua hilobi guztietako gutxieneko baldintzak: 2 metroko sakonera, 0,80 metroko zabalera eta 2,50 metroko luzera. Lau alboen artean 0,50 metroko tartea egongo da gutxienez.

c) Panteoi edo gangarako partzela. Panteoiaren neurriak dagoeneko eraikitako panteoien antzekoak izango da. Hau da, ez da 2022ko urtarrilaren 1ean eraiki ziren panteoietan gordetzen diren baino hilotz gehiago gorde ditzaketen panteoientzako baimenik emango.

d) Kolunbarioko nitxoa gorpuzki edo hautsetarako.

2. Plangintzak ehorzketa-unitateak daudela ziurtatu behar du, eta Udalari agintzen dio hutsik dauden ehorzketa-unitateak okupatzeko, unitate berriak eraiki edo gaitu aurretik.

38. artikulua. Ehorzketa islamikoetarako erreserbatutako partzelak

1. Estatuaren eta Espainiako Batzorde Islamikoaren arteko Lankidetza Akordioa onartzen duen azaroaren 10eko 26/1992 Legearen eranskineko 5. ataleko 2. artikuluan xedatutakoa betez, artikulu horretan udal-hilerrian ehorzketa islamikoetarako erreserbatutako partzelak arautzen dira.

2. Ehorzketa islamikoetarako erreserbatutako partzelen esparrua seinaleztatuta egongo da.

3. Hilotzak desobiratzeko hilotzen-sanitatearen arauan xedatutakoaren arabera egingo da, eta honako hauetara egokituko da:

a) Hilotzak lekualdatzea, ehorztea eta erraustea debekatuta dago hilotzen sanitateari buruzko araudian adierazten diren baldintzak betetzen dituen hilkutxarik gabe.

b) Hilkutxan hilotz bakarra egongo da, salbu eta aldi berean hildako ama eta abortukinen kasuan.

c) Islameko tradiziozko arauekin bat, ehorzketak hilobietan egingo dira.

d) Hilobien gutxieneko ezaugarriak berdin-berdinak izango dira hilerriko hilobi guztietan.

e) Hilotzak soilik langile publikoek edo ehorzketa-enpresek ehortzi, desobiratu edo lekualdatuko dituzte. Guztiz debekatuta dago partikularrek lan horiek egitea.

VI. KAPITULUA. TARIFAK

39. artikulua. Eskubideak sortzea

1. Udalak eskatuta ematen dituen zerbitzu guztiak dagokion ordenantza fiskalean aurreikusitako eskubideen ordainketari lotuta egongo dira.

2. Era berean, eskubideak sortuko dira autoritate eskudunak ezarritako jarduketetan, edo arau legaletatik edo erregelamendu honetatik ezarritakoak, nahiz eta pertsona interesdunek jarduketa horiek espresuki ez eskatu.

3. Zerbitzuak emateagatik edo ehorzketa-eskubidea emateagatik sortutako tasa edo prezioak likidatzeari, jasotzeari edo ikuskapenari lotutako guztia ordenantza fiskal arautzailearekin edo Arabako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrean aurreikusitakoarekin bat aplikatuko da.

40. artikulua. Tarifak zehazteko irizpideak

1. Tarifak zerbitzuen edo inbertsioen kostuaren arabera zehaztuko dira. Nolanahi ere, zenbatekoak konpentsatzeko aukera egongo da. Era horretan, gaitasun ekonomiko handiagoa dakarten zerbitzu eta emakiden tarifak handitu egiten badira, horiek ordaindu behar dituzten eta gaitasun ekonomiko txikiagoa dutenek ordain ditzaten, Toki Ogasunei buruzko Legearen testu bateginaren 24.4 artikuluan eta Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bateginaren 27.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

2. Ehorzketa-unitateak emateagatiko tarifetan kontuan hartuko da ehorzketa-unitaterako behar den lurzoruaren okupazioa.

3. Udalak herritarrei ehorzketa-eskubidea eman ahalko die Erregelamendu honetako 16. artikuluko 2. ataleko b letran zehazten denaren arabera, eta, kasuaren arabera, lurperatzeko zerbitzua partzialki dohainik eman dezake kasu bakoitzeko arrazoi ekonomiko eta sozialen arabera. Prestazio hau, Alkatetzari zuzendutako eskaera bidez, salbuetsia izan daiteke, baina eskaera arrazoitzen duen dokumentazioarekin batera egin behar da.

41. artikulua. Zerbitzuengatiko eskubideak sortzea eta ordaintzea

Zerbitzuengatiko prezioa sortzen dela ulertuko da hura eskatzen den momentutik. Ordainketa, edozein kasutan, kontratazioa egiten den momentuan eta zerbitzua eman aurretik egingo da. Finantza-erakundeekin hitzarmenak egin ahal izango dira erabiltzaileei ehorzketa eskubideen eta zerbitzuen emakidak finantzatzeko kredituak izapidetu eta emateko, baldintzarik onuragarrienetan.

42. artikulua. Pertsona behartsuak ehorztea eta epailearen mandatu bidez

Udalaren kontura eta horren kargu izango dira:

1. Pertsona behartsuen hilotzak ehortziko dira, baldin eta behartsuak direla egiaztatu bada eta hildakoaren familiak ordainduko duen hiletarik ez badago. Hilotzaren tratamenduari buruzko eta gorpuzkien norakoari buruzko erabakia Udalak hartuko du kasu honetan.

2. Agintaritza Judizialak agindutako ehorzketak eta hobi komunean egiten direnak.

43. artikulua. Hileta-zerbitzuetako enpresak

Hileta-zerbitzuetako enpresak beren bezeroentzat eskatzen dituzten zerbitzuak ordaintzeaz arduratuko dira.

Udalak zerbitzuak ordaintzea eska diezaieke interesdunei edo aipatutako enpresei, kontratazioaren arabera dagokion berreskaera-eskubideari kalterik egin gabe.

44. artikulua. Jarduketak aurkaratzea

Hilerriko zerbitzuaren jarduketak eta erabakiak, bere eginkizunak betetzean, zuzenbide administratiboaren arabera arautuko dira.

45. artikulua. Organo eskuduna

Estatuko edo Euskal Autonomia Erkidegoko legeriak edo Erregelamendu honek Udalari esleitzen dizkion eskuduntzak ditu Alkatetzak, Osoko Bilkurari edo beste udal-organo batzuei berariaz esleitzen ez dizkietenak.

Lehenengo xedapen iragankorra

a) Hilobiak lagatzea jabari publikoaren gaineko emakida-negozio juridikoa da, eta “betiko” adierazpena ezin da hitzez hitz interpretatu, jabari publikoaren gaineko eskubideak baitira.

b) Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 93.3 artikuluarekin bat, kontzesioak epe zehatz baterako emango dira. Gehienezko epea, luzapenak barne, ezingo da 75 urtetik gorakoa izan, salbu eta aplikagarriak diren arau berezietan epe laburragoa ezartzen bada.

c) Erregelamendu honetako 21.3 artikuluan aurreikusitako ehorzketa-eskualdaketa eskubidea eman eta geratzen den aldirako aitortuko da, 75 urte bete arte.

d) Kontzesio-epea mantenduko dute erregelamendu hau onetsi aurretik emandako hilotzentzako nitxoaren eta kolunbariontzako nitxoaren ehorzketa-eskubidearen kontzesioek.

e) Indarrean dauden kontzesioen epeak luzatzeko, erregelamendu honetan ezarritakoaren arabera egingo da.

Bigarren xedapen iragankorra

Erregelamendu hau behin betiko onartzen bada, udal-hilerriko tasari buruzko 8. ordenantza fiskal arautzailea aldatu beharko da.

Lehenengo xedapen gehigarria

Alkatetzari aldaketa legalak egiteko eskumena ematea.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 2. ataleko (tokiko araugintza-ahala) lehenengo xedapen gehigarriarekin bat, Alkatetzari arau-xedapen horietan aldaketak sartzeko gaitasuna eman ahalko zaio, baldin eta nahitaez aplikatu beharreko lege-aldaketen ondoriozkoak badira, eta eskakizunak aldatu beharra edo zenbatekoak edo ehunekoak automatikoki egokitu beharra badakarte. Aldaketetan beren-beregi adieraziko da hori. Aldaketa horien berri, berehala emango zaio Udalbatzari, berrets ditzan.

Bigarren xedapen gehigarria. Udal-mugarteko beste hilerri batzuk

a) Erregelamendu hau modu osagarrian aplikatuko da Beheko Larraineta zk. g. kalean dagoen hilerri zaharrean. Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak, 2016ko maiatzaren 16an, administrazio-baimen sanitarioa eman zuen Beheko Larraineta zk. g. kaleko hilerri zaharrean ehorzketak eteteko. Erabaki hori 2016ko ekainaren 20ko ALHAOn (70. zenbakia), 2016-02142 iragarkian argitaratu zen.

b) Erregelamendu hau ez da aplikatuko Gorrebusto eta Labrazako hilerrietan. Hilerri horiek kudeatzeko eskumena Gorrebusto eta Labrazako kontzejuei dagokie, Arabako Lurralde Historikoko herri-batzarrei buruzko martxoaren 20ko 11/1995 Foru Arauaren 7.1 artikuluko a) eta d) ataletan zehaztutakoarekin bat.

Xedapen indargabetzailea

Erregelamendu hau indarrean jartzen denean, indargabetuta geratuko dira erregelamendu honetako aginduekin kontraesanean dauden edo bateraezinak diren maila bereko edo beheragoko arau guztiak.

Azken xedapena

Erregelamendu honetan jasotzen ez diren eta sortzen diren kasuetarako, organo eskudunek horien inguruan hartutako erabakien eta indarrean dagoen araudiaren arabera ebatziko dira.

Erregelamendu hau Toki Araubideen Oinarrien Legean zehaztutakoaren arabera sartuko da indarrean. Erregelamendu hau indarrean sartzen denean ehorzketa-eskubideko mota guztietako zerbitzu eta kontzesioetan aplikatuko da, bai eta eskubide horretarik eratorritako eskubide eta betebehar guztietan ere.

Firmante: CN=ZERBITZU OROKORREN ZUZENDARITZA - DIRECCION SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 211865
Fecha de firma: 2022.10.10 05:20:09 Z